

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5314

AGINDUA, 2021eko irailaren 30ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak iragartzen baitira espetxean dauden edo baldintzapeko askatasuna duten zigortuak eta zigor askatasun-gabetzailea etenda duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak 10.14 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du espetxeetako antolaketan, araubidean eta funtzionamenduan eta gizarteratze alorrean, arlo zibileko eta zigor- eta espetxe-arloetako legeria orokorrarekin bat etorriz. Bestalde, 12.1 artikulua gure autonomia-erkidegoari esleitzen dio Estatuaren espetxe-legeria betearazteko eskumena.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 14.f) artikulua arabera, Justizia Zuzendaritzari dagokio «bere eskumenen esparruan, zigor- eta espetxe-legeria betearaztea, Jaurlaritzak eremu horietan dituen gainerako jarduerekin koordinatuta».

Justizia Zuzendaritzak, eskumen horiek egikaritze aldera eta ezarritako mugen barruan, Europako Parlamentuak 1998ko abenduaren 17ko Ebazpenean jasotako gomendioei jarraitzen die (Europar Batasuneko espetheen baldintzei buruzko ebazpena: berrantolaketa eta ordezkapen-zigorak); izan ere, gomendio horien bidez, Europako Kontseiluaren espetxeetako arauen xedapen guztiak aplikatzeko eskatzen zaie Europar Batasuneko estatu guztiei.

Justizia Zuzendaritzaren funtsezko xedea da, lege-esparruaren barruan, espetxeetako zerbitzuen eta berriz hezteko eta gizarteratzeko programen hobekuntza bultzatzea, nazioarteko testuetan eta Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluan jasotako gizarteratze-printzipioa gauzatu ahal izateko, hain zuzen.

Ildo horretatik, 2011n, Barne Ministerioarekin bi hitzarmen izenpetu ziren: batetik, erakunde horrekin lankidetzan jarduteko, zigorrak eta espetxearen ordezkari neurriak kudeatzen, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko prozesu integralak sustatzeko. Hitzarmen horiek berekin ekarri dute urteetan jarraipena izan duten dirulaguntza-deialdiak egitea, aukera eman dutenak kolektibo hori gizarteratu eta lan-munduan txertatzeko baliabide-sare bat sendotzeko.

Baliabide horien bidez, Eusko Jaurlaritzak lortu nahi du zigortuta eta preso dauden pertsonen eskubide osoko herritar gisa orientatzea euren bizitzak, eta, espetxea utzi eta gero, komunitatean erabat integratu daitezela aktibo sozial gisa. Ildo beretik, interesgarria da zigorrak baldintzapean etenda dituztenekin lan egitea, gizarteratze-ibilbideak ezartzeko aukera eskaintzen baitu; horrela, pertsona batzuek beren bizitza berregiteko aukera izan dezakete, eta gure gizartearentzat aktibo bihurtu, kartzelako bizimoduak gizarteratzeko dakartzan ondorio kaltegarriak jasan gabe.

Ekitaldi honetan, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartuko ditu, oso-osorik, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko eskumenak, hala ezarrita baitago ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuan eta uztailaren 6ko 169/2021 Dekretuan. Izan ere, bi xedapen horiek Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren 2021eko maiatzaren 10eko Akordioa onartzen dute, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko.

Hori dela eta, are garrantzitsuagoa da oraingo deialdi hau onartzea, lehendik ezarrita zegoen lankidetzaren mugak gainditzen baititu, eta bide ematen baitio, forma guztietan, Europako ikuspegiari, bat etorritz Euskadiko espetze-eredua garatzeko programazioan adierazten den orientazioarekin. Hain zuzen ere, Europako ikuspegi horren gainean finkatu nahi dira zigor-legeekin gatazkak izan dituzten pertsonak birgizarteratzeko politikak.

Ikuspegi horrekin bat etorritz, ezinbestekoa da gizarte zibilaren konpromisoa. Alde horretatik, hirugarren sektoreko erakundeek ekimenak eta gizarte-konpromisoa arrakastaren eta lortu nahi denaren adierazgarri dira gure herrialdean, horrelako erakunde gehienek 20 urte baino gehiago jardun baitute benetako gizarteratze efektiboa lantzen espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuen kolektiboarekin, bai eta zigor askatasun-gabetzailea etetea onartuta duten zigortuekin ere. Erakunde horiek Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeekin koordinatuta eta profesionaltasunez jardun dute, eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritu dira efizientziaz eta gardentasunez.

Aipatutako helburua betetzeko, eta administrazio-ebazpenaren objektibotasuna bermatze aldera, agindu honetan jasoko da, zehaztasun guztiz, zein diren dirulaguntzak emateko irizpideak. Hauxe da aplikatu beharreko lege-esparrua: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, hura garatzen duen erregelamendua onartzen duena; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena dirulaguntzen arloan, betiere aurrekoen kontrakoa esaten ez badu; eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenak.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginari jarraikiz (testu bategin hura azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen bidez dirulaguntzetarako deialdia egiten da, norgehiagoka-araubidean, espetxean sartuta dauden edo baldintzapeko askatasuna duten zigortuak eta zigor askatasun-gabetzailea eten zaien zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako; horrez gain, aginduan deialdia arautzeko oinarriak ezartzen dira. Horretarako, deialdiaren diru-zuzkidura bostehun mila (500.000) eurokoa da.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa handitu ahal izango da, aurrekontu-baliabideak badaude, indarrean dagoen legerian aurreikusitako kreditu-loturako edo aurrekontu-aldaketako araubidearen arabera, baina prozedura ebatzi baino lehen handitu beharko da. Hala gertatuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da horren berri, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu baten bidez.

2. artikulua.– Diruz lagundutako proiektuak.

1.– Dirulaguntza jaso nahi duten proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan sartuta dauden zigortuak edo EAEn baldintzapeko askatasuna duten zigortuak gizarteratzeari eta lan-munduan txertatzeari buruzkoak izan behar dira, eta honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Modalitate hauetakoren batekoak izan behar dira:

- 1) Esku-hartze psikoterapeutikorako eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzerako programak.
- 2) Programatutako irteerak eta auzolandegiak.
- 3) Egoitza- eta alojamendu-baliabideak.
- 4) Gizarteratzeko baliabideak droga-mendekotasuna duten pertsonentzat.
- 5) Prestakuntza- eta trebakuntza-zentroak.
- 6) Lanerako orientazio- eta laguntza-zentroak.

b) Espetxeetan hasten diren proiektuak ekitaldi honetan garatu behar dira, dagokion espetxeko zuzendaritzak alde aurretik onartuta.

c) Laguntza integraleko metodologia erabili behar da.

d) Proiektuak 2021ean egingo dira.

2.– Zigor askatasun-gabetzailea eteteko neurria jaso duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuek kasu hauetan jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak: aurreko paragrafoko baldintzak betetzen badituzte eta xedetzat prestakuntzarako programak, lanbide-programak, kultura-programak, sexu-hezkuntzako programak, ingurumena defendatzeko programak, animaliak babesteko programak, tratu berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako programak edo antzeko beste batzuk badituzte, edo alkoholaren, droga toxikoen edo substantzia estupefazianteen mendekotasuna gainditzeko programak.

3.– Baldintzak proiektuak burutu aurretik eta diruz laguntzeko aldian bete beharko dira.

3. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak eta gehienez eska daitekeen dirulaguntza-zenbatekoa.

1.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira, deialdi honetan ezarritakoaren ondoretarako, dirulaguntzaren xede den jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak eta behar-beharrezkoak direnak, betiere 2021ean egiten badira.

Zehazki, egindako gastutzat hartuko dira agindu honetako 18. artikuluan ezarritako justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindu direnak.

2.– Dirulaguntza jasotzeko modukotzat joko dira diruz lagundutako jarduerari onuradunak egozten dizkion zeharkako kostuak; dena den, kostu horiek ezin izango dute gainditu diruz lagundutako jardueraren kostu osoaren % 5. Zeharkako kostu horiek ez dute justifikazio gehigarririk behar izango.

3.– Diruz laguntzeko modukotzat joko dira proiektua gauzatzeko aurrekontu banakatuan jasota dauden gastuak, agindu honen 9. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik, betiere artikulua honen arabera dirulaguntza jasotzeko betekizunak betetzen badituzte.

4.– BEZaren zenbatekoa ez da diruz lagun daitekeen gastua izango, baldin eta gero berreskuratzen edo konpentsatu badaiteke. Kasu horretan, frogagiriaren zerga-oinarriaren zenbatekoa hartuko da gastutzat.

5.– Inola ere ez da diruz lagunduko ekipamenduen eta ondasun inbentariagarrien erosketa.

4. artikulua.– Azpikontratatzea.

1.– Diruz lagunduko diren proiektuetako jarduerak azpikontratatu ahal izango dira, baina gehieze ere diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50eraino eta soilik irabazi-asmorik gabeko erakundeekin. Inola ere ezin izango dira azpikontratatu dirulaguntzaren kostua handiagotzen duten eta jardueraren edukiari balio erantsirik gehitzen ez dioten jarduerak.

2.– Alabaina, onuradunak ezin izango du honako hauekin itundu diruz lagundutako jardueraren gauzatze oso edo partziala:

a) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutako debekuren bat duten pertsonak edo erakundeak.

b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo erakundeak.

c) Bitartekari edo aholkulariak, baldin eta horiei ordaindu beharrekoa eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin gisa definitzen bada, salbu eta ordainketa justifikatuta badago egindako lanak edo emandako zerbitzuek merkatuan daukaten balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateak, egoera hauetakoren batean izan ezik:

1) Aldez aurretik organo emailearen baimena eskuratzea.

2) Diruz lagundutako zenbatekoak ez gainditzea lotutako entitateak izandako kostua. Kostua justifikazioan egiaztatuko da, onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarritako baldintza beretan.

e) Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu eta lortu ez duten pertsonak edo erakundeak, eskakizunak betetzen ez dituztelako edo behar besteko balorazioa lortu ez dutelako.

5. artikulua.– Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta baldintza horiek egiaztatzeko modua.

1.– Dirulaguntza eskatu ahal izango dute Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuetatik bat ere ez duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, betiere oinarri arautzaileetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 13.2 artikuluan onuradun izateko ezartzen dituen debekuetatik bat ere ez dutela egiaztatzeko, notarioaren aurrean edo administrazio-agintaritza batean egindako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da (horretarako, agindu honen I. eranskineko eskaera-inprimakian bildutako erantzukizunpeko adierazpena bete ahal izango da).

Nolanahi den ere, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Legez ezarritako moduan eratuta egotea eta, izaera juridikoa aintzat hartuta, dagokion erregistroan inskribatuta egotea.

b) Egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea.

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Justizia Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du, erakundeak horretarako baimena ukatzen ez badio, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla. Hori guztia, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 50.3 artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera. Erakunde eskatzaileak berriaz adierazten badu egiaztatze horren aurka dagoela, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko, Dirulaguntzen Legearen Erregelamendu Orokorrek

(uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendua) 22. artikuluan arautzen dituen administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dizkio deialdia kudeatzen duen organoari.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa), dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik ez izatea, ebazpen irmo bidez, ezta horretarako desgaitzen duen legezko inolako debekurik ere, sexu-diskriminazioagatik eragindakoak barne.

e) Dirulaguntzak eta laguntzak esleitzeko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa edo zehapen prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzengatik hasi eta artean izapidetzen ari direnak.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Eskabideak bide elektronikoz izapidetuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/servicios/0040811>). Hor daude eskuragarri bide elektronikoz izapidetzeko azalpenak, eranskinak eta inprimakiak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri:

Gaztelaniaz, <https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>

Euskaraz, <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Ordezkarri baten bidez ere egin ahal izango dira izapide elektronikoa; horretarako, ordezkaritza inskribatu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, honako helbide hauen bidez:

Gaztelaniaz, <https://www.euskadi.eus/representantes>

Euskaraz, <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak eta jakinarazpenak «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Honako hauek arautzen dituzte izapide elektronikoa: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, administrazio elektronikoa buruzkoa; 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa; eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazio zuzendariarenak, Platea e-administrazioarako plataforma teknologikoa onartzen duena.

7. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Justizia Zuzendaritzari dagokio deialdi honen kudeaketa, Helduen Justizia Zerbitzuaren bidez.

8. artikulua.– Eskabideak.

1.– Eskabideetan, agindu honen 2. artikuluan zehaztutako modalitatearen bat garatzen duen proiektu bat jaso beharko da. Modalitate bat baino gehiago garatzen dituzten erakundeek eskabide bat aurkeztu beharko dute modalitate bakoitzeko. Era berean, modalitate batean kokatu daitez-

keen proiektu desberdinak garatzen dituzten erakundeek eskabide bat aurkeztu beharko dute proiektu bakoitzeko. Proiektuaren hartzaile izan daiteke hauetako edozein: espetxean edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuak edota zigor askatasun-gabetzailea eten zaien zigortuak.

2.– Erakundeek gehienez hiru eskabide aurkeztu ahal izango dituzte.

3.– Erakundeek ezin izango dute 80.000 eurotik gorako dirulaguntza-eskabiderik aurkeztu. Erakunderen batek eskabide bakarra aurkezten badu eta han zehaztutako proiekturako eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoak gehieneko kopuru hori gainditzen badu, eskabidea ezetsi egingo da. Erakunderen batek eskabide bat baino gehiago aurkeztu eta sarrera ematen zaien hurrenkeraren arabera aurkeztu duen lehenengo eskabideak gehieneko zenbatekoa gaindituz gero, eskabide guztiak ezetsiko dira. Eskabide horrek zenbatekoa gainditzen ez badu, sarrera ematen zaien hurrenkeraren arabera batuko dira aurkeztutako eskabideen zenbatekoak, eta gehieneko zenbatekoa gainditzea dakarren eskabidea ezetsi egingo da, eta, hala badagokio, ondoren aurkeztutakoa.

4.– Erakundeek eskabidea hilabeteko epean aurkeztu beharko dute, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak betetzeko agindu honen I. eranskineko eredia erabili beharko da, eta bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/servicios/0040811>).

5.– Eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten eran. Orobat, prozeduran zehar, erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

9. artikulua.– Dokumentazioa.

1.– Eskabidearekin batera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Eratze-eskritura, estatutuak eta erakundea, izaera juridikoa kontuan hartuta, dagokion erre-gistroan inskribatuta dagoelako egiaztatzea.

b) Diruz laguntzea nahi den proiektuaren gaineko memoria. Memoria egiteko eredu normalizatu («Proiektuaren memoria») agindu honen II. eranskinean dago eskuragarri, eta hemendik jaitsi daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/0040811>

Memorian zehaztu beharko da 2. artikuluan zehazten diren aukeretatik zeinetan kokatzen den proiektua. Erakundeek argi eta zehaztasunez azaldu beharko dute egingo den jardueraren, zigortuekin egingo den lana, proiektuaren helburu zehatzak eta erabiliko den metodologia.

c) Proiektua gauzatzeko aurrekontu banakatua; beste finantza-iturririk izanez gero, zehaztu egin beharko da, eta halakorik ez badago, zinpeko adierazpen baten bidez adierazi beharko da ez duela ez baliabide propiorik ez kanpikorik, proiektua finantzatzeko. Horretarako, agindu honen III. eranskinean bildutako eredu normalizatua («Aurrekontu banakatua») erabili beharko da; hemendik jaitsi daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/0040811>

2.– Eskabideak baloratzeko, aurreko paragrafoan aipatutako dokumentuak bakar-bakarrik hartuko dira kontuan. Dena dela, erakundeek dokumentu osagarriak aurkeztu ahal izango dituzte, proiektua hobeto baloratzen lagunduko dutela uste badute.

3.– Jarduerak dagoeneko bukatuta baldin badaude, egindako gastuak justifikatzeko behar diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira, agindu honetan eskatzen den moduan.

4.– Organo kudeatzaileak espedientea behar bezala osatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eta azalpenak eska diezazkioke erakunde eskatzaileari. Gainera, eskatzaileak emandako datuak egiaztatzea ahal izango ditu.

10. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

Organo kudeatzaileak egiaztatzen badu erakunde eskatzailearen batek aurkeztutako dokumentazioan zerbait falta dela edo aurreko artikuluetan adierazitako betekizunak betetzen ez direla, eskatuko dio hamar eguneko epean hutsa zuzen dezala edo dagozkion agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko dio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, alde zuzentzeko ebazpena emango da, zirkunstantzia horren berri emateko, eta, bertan, jazotako egitateak eta aplikatu daitezkeen arauak zehaztuko dira.

11. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Balorazio-batzorde bat eratuko da, zeinak dirulaguntzak baloratzeko proposamena egingo baitu.

2.– Honako hauek osatuko dute balorazio-batzordea:

a) Batzordeburu titularra: Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzuaren arduraduna. Ordezko batzordeburua: Beatriz Agirre Alberdi, Justizia Zuzendaritzako aholkulari juridikoa.

b) Batzodekideak: Arabako, Basauriko eta Martuteneko espetxeetako zuzendariak; ordezkoak espetxe bakoitzeko tratamendu-zuzendariordeak izango dira.

3.– Batzordeko idazkaria Naiara Madariaga Mesanza izango da, Justizia Zuzendaritzako teknikaria.

12. artikulua.– Baloratzeko irizpideak.

1.– Eskabideak balorazio-irizpide eta puntuazio-eskala hauen arabera baloratuko dira:

a) Proiektuan parte hartzen duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko prozesuari proiektuak egiten dion ekarpena: 0-20 puntu.

1) Parte hartzen duten zigortuei espetxez kanpo bizitzeko aukera ematen dieten proiektuak, horien intentsitatearen arabera: 11-20 puntu.

2) Gainerako proiektuak, horien intentsitatearen arabera: 0-10 puntu.

b) Proiektuaren egokitasuna edo interes soziala: 0-20 puntu.

1) Lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako zuzendutako proiektuak (espetxearekiko ohitze-maila altukoak, ijitoak, migratzaileak, emakumeak eta osasun mentala duten pertsonak), horietan parte hartzen duten pertsona-kopuruaren eta intentsitatearen arabera: 11-20 puntu.

2) Gainerako proiektuak, erabiltzaile-kopuruaren eta proiektuaren intentsitatearen arabera: 0-10 puntu.

c) Proposatzen diren jardueretan, erakundeak noraino parte hartzen duen eta norainoko lankidetzaren duen: 0-10 puntu.

1) Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuarekin eta Lanbiderekin: 8-10 puntu.

2) Presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko lanean ari diren beste erakunde eta organizazio batzuekin: 0-7 puntu.

d) Proiektua hainbat urtetan gauzatzeko aukera: 0-5 puntu.

1) Autofinantzaketa duten proiektuak, autofinantzaketa-ehunekoaren arabera: 3-5 puntu.

2) Bideragarritasuna egiaztatuta duten proiektuak, urteen arabera. Gutxienez, proiektua azken bi urteetan egindakoa izan behar da. 0-2 puntu.

e) Boluntarioen parte-hartzea: 0-5 puntu.

1) Boluntario-kopurua dirulaguntzarako aurkeztu den proiektuan: 3-5 puntu.

2) Boluntario-kopurua erakundearen beste proiektu batzuetan: 0-2 puntu.

2.– Balorazio-irizpide horiek aplikatuta, gehienez ere 60 puntu lortu ahal izango dira.

3.– Dirulaguntza emateko, aurreko irizpideen arabera 30 puntutik gora lortu beharko ditu eskabideak.

13. artikulua.– Zenbatekoa zehaztea.

1.– Dirulaguntzaren organo kudeatzaileak aukera izango du diruz laguntzekoak ez diren gastuak edo proiektuarekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak hartzen dituzten eskabideetako diru-kopuruak doitzeko, dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztu baino lehen.

2.– Balorazio-irizpideen arabera 30 puntu baino gehiago lortu dituzten eskabideen proiektuei zenbateko dirulaguntza dagokien zehazteko, urrats hauek egingo dira:

a) Eskabideak puntuaziorik altuenetik txikienera antolatuko dira. Eskabideren batek 60 puntu (gehieneko puntuazioa) lortzen baditu, eskatutako dirulaguntza-zenbatekoaren ehuneko ehuneko (% 100) dirulaguntza-portzentaje teorikoa aplikatuko zaio. Artikulu honen lehen apartatuan adierazitakoaren arabera, kontuan hartu behar da aldez aurretik birdoitu egin behar direla erakundeek eskatutako kopuruak, dirulaguntzarik jaso ezin duten gastuei edo proiektuarekin lotuta ez dauden gastuei dagokienez. Gainontzeko eskaerei balorazio irizpideetan lortutako puntuen araberrako portzentaje proportzionala aplikatuko zaie, hurrenez hurren.

b) Kasu bereziak:

1) Dirulaguntzen zenbateko teoriko guztiak batuta aurrekontuen diru-zuzkidura gainditzen bada, dirulaguntzen zenbateko guztiak proportzionalki egokituko dira, eta dirulaguntza teoriko guztiei portzentaje berbera jaitziko zaie. Portzentaje hori honela kalkulatu da: diru-zuzkidura zati zenbateko teoriko guztia.

2) Dirulaguntzen zenbateko teoriko guztiak batuta aurrekontuen diru-zuzkidura gainditzen ez bada, berriz, soberakoa eskabide guztien artean banatuko da proportzionalki, aurreko paragrafoan ezartzen den prozedura berari jarraituta. Horrela kalkulatu zenbatekoak ezingo du inondik inora gainditu diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko ehun (% 100).

3.– Proiektu bakoitzari eman ahal zaion gehieneko dirulaguntza 50.000 eurokoa izango da. Muga hori handitu ahal izango da, dirulaguntzak esleitu aurretik, dirulaguntza-programara bideratutako zenbateko osoa handitzen den ehuneko berean, baldin eta 1. artikuluko bigarren apartatuan aurreikusitakoa gauzatzen bada.

14. artikulua.– Ebazpena.

1.– Balorazio-batzordearen proposamena ikusita, eskatutako dirulaguntzak emateko nahiz ukatzeko ebazpena emango du Justiziako zuzendariak, eta, bertan, proiektu bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da. Ebazpena bide elektronikoak erabiliz jakinaraziko zaie erakunde interesdunei, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza

elektronikoko «Nire karpeta» atalean (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, guztiek jakin dezaten.

2.– Dirulaguntzak emateko nahiz ukatzeko ebazpena jakinarazteko gehienezko epea sei hila-betekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan ez bada berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi, eskabideak ezetsizat jo ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.9 artikuluan ezarritakoaren arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

3.– Ebazpen horrek administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

15. artikulua.– Onarpena.

1.– Erakunde onuradunen aldetik dirulaguntza onartzeak esan nahi du onartu egiten dituztela agindu honetan ezarritako arau guztiak, bai eta honako hauetan ezarritako bermeak eta diru-itzulketen eta zehapenen erregimena ere: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

2.– Laguntza onartu dela ulertuko da, laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera 5 egun pasatu ondoren onuradunak besterik adierazi ez badu.

16. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Halaber, erakunde onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntzak xede duen proiektu zehatza egiteko erabiltzea dirulaguntza hori, agindu honen 19.1.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatzekoa bada izan ezik.

b) Organo kudeatzaileari jakinaraztea, dirulaguntza jasotzeko beharrezkoak diren betekizunak betetzea edo dirulaguntzaren xede den proiektua burutzea ezinezkoa egiten duen (osorik edo partez) gerora sortutako gorabeheren bat gertatzen bada.

c) Organo kudeatzaileari jakinaraztea proiektuak gauzatzeko aldi diruz lagundutako proiektuak finantzatzeko emandako edozein dirulaguntza edo laguntza eman diotela edo ukatu diotela, horren berri izan bezain laster.

d) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen xedearen fiskalizazio-funtzioak betez eskatutako informazio guztia ematea.

e) Dirulaguntza eman eta onartu ondoren argitaratzen diren programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako idatzizko eta soinu-zko materialen aleetan beren-beregi adieraztea Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso dela Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunari buruzko eskuliburua onartzen duen abuztuaren 31ko

318/1999 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da. Informazio gehiago eta eskabideak eskuratzeko: https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/es/contenidos/informacion/identidad_corporativa/es_5611/identidad_corporativa.html

17. artikulua.– Ordainketa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.11 artikuluan ezarritakoaren arabera, ordainketa honela egingo da: dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hura onartzeko epea amaitu ostean dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamabost (% 75) ordainduko da. Gainerako ehuneko hogeita bosta (% 25) 2022ko otsailaren 28a baino lehen ordainduko da, 18. artikuluan aipatutako dokumentuak Justizia Zuzendaritzan aurkeztu ondoren.

2.– Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, laguntza ematearen aldeko ebazpena argitaratu baino lehen amaituta dauden jardueri dagozkien dirulaguntzak osorik eman daitezke, ordainketa bakarraren bidez, baldin eta erakundeak osorik justifikatu badu dirulaguntzaren xedea, aurreko paragrafoan adierazitako justifikatzeko agiriak aurkeztuta.

3.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuraduna Eusko Jaur-laritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko da; hau da, erregistratuta ego beharko da aipatutako sailaren Hirugarrenen Erregistroan.

Bertan erregistratzeko edo jasota dauden bankuaren datuak aldatzeko, Hirugarrenen Erregistro telematikoan sartu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/altaterceros>

18. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta justifikatzeko dokumentazioa.

1.– Erakunde onuradunek organo kudeatzaileari justifikatu behar diote dirulaguntza jasotzeko beharrezkoak diren betekizunak betetzen dituztela, baita dirulaguntzaren xede den proiektua burutu izana ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, 2022ko otsailaren 28a baino lehen, honako informazio hau biltzen duen justifikazio-kontu baten bidez:

a) Justifikatzeko memoria: edozein formatutan aurkeztuko da, jarduera zehatz-mehatz deskribatuko du eta honako hauek zehaztuko ditu, gutxienez: erabiltzaile-kopurua, sexuaren arabera bereizita, eta, hala badagokio, lan-munduan txertatzeko zaila den talderen batekoak diren (espe-txearekiko ohitze-maila altukoak, ijitoak, etorkinak, emakumeak edo osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak). Ahal izanez gero, dirulaguntza jaso duen jarduera burutu dela ziurtatzen duten argazkiak edota dokumentu grafikoak aurkeztuko dira memoriarekin batera, eta, hala dago-kionean, argitaratutako programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako idatzizko eta soinu-zko materialen aleak.

b) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, agindu honen IV. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera. Helbide honetan jaitsi daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/0040811>

Inprimakian, honako hauek adierazi behar dira, gutxienez:

1) Proiektuaren jarduerarako egin diren inbertsioen eta dirulaguntzaren kontura egindako gastuen zerrenda. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek proiektuaren kostu osoaren % 100 justifikatu beharko dute (eta ez bakarrik dirulaguntzaren zenbatekoa). Gastu bakoitza zer hel-bururekin egin den azalduko da labur-labur eta gastuon dokumentuak aurkeztuko dira, datu hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data. Fak-tura edo gastuen dokumentu osoa ez bazaio egozten emandako dirulaguntzari, zenbateko horretatik zenbat egozten den zehaztuko da.

2) Erakunde onuradunak, diruz lagundu den proiekturako, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako bestelako finantzaketa edo dirulaguntzen zenbaterako eta jatorrien zerrenda zehaztua, baldin eta aurretik horien berri eman ez bazion organo kudeatzaileari.

c) Emandako dirulaguntzari egotzi ahal zaizkion fakturak eta ordainagiriak (proiektua egiten duen dirulaguntzaren onuradunaren izenean jaulkiak), dirulaguntzaren zenbatekorainokoak gehienez.

2.– Proiektua egin izana justifikatzeko agiriak bide telematikoak erabilia aurkeztuko dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Dirulaguntzaren organo kudeatzaileak, 2022ko otsailaren 28a baino lehen, ausaz aukeraturako gutxienez bost erakunde onuradun bisitatuko ditu, justifikazio-agirietan emandako informazioa egiaztatzeko eta justifikazio-agiri originalak eskatzeko (beharrezkotzat jotzen dituen kontu-ikuskarpenak egiteko xedez).

19. artikulua.– Dirulaguntzak emateko betekizunak ez betetzea.

Dirulaguntza itzultzeko kausak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoak.

1.– Betiere ez-betetze kasuak izango dira honako hauek:

a) Jasotako dirulaguntza osoa edo horren zati bat bere garaian aurkeztutako proiektuaren araberaren onartu zen jarduerari ez dagokion bestelako jarduera baterako erabiltzea.

b) Diruz lagundutako proiektuan aldaketak egitea, salbu eta, funtsezkotzat hartzen ez direlako, eskaera arrazoitua egin ostean, Justiziako zuzendariak esanbidez baimentzen baditu, betiere dirulaguntzaren onuradun izateko deialdi honetan ezarri diren gutxienerako betekizunak betetzen badira. Gutxienerako betekizunak hauek izango dira: erakunde onuradun izateko baldintza guztiei eustea; proiektuak, proiektu bera izanda eta erakunde onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla-eta, aurrez ikusitakoa baino zigortu eta preso gutxiagori ekartzea onurak; edo, gizarteratze-helburuak beteta, helburu horiek antzeko gizarteratze-proiektuekin lortu izana.

c) Aurkeztutako eskabidean edo dokumentazioan azaltzen den daturen baten faltasutasuna.

2.– Erakunde onuradunak betetzen ez baditu dirulaguntzak emateko ebazpenean edo agindu honetan ezarritako baldintzak, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du, eta ordura arte jasotako dirulaguntza eta berandutze-interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, honako hauetan ezarritakoarekin bat etorritik: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutuan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenak.

20. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Beste edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk eman dezakeen dirulaguntza edo laguntza ororekin bateragarriak dira dirulaguntza hauek. Baina, helburu berbererako eskuratutako dirulaguntzen zenbateko guztia aurrekontua baino handiagoa bada, agindu honen bidez emandako dirulaguntzaren zenbatekoari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

21. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretako bat aldatzen bada, dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen dela eta 2. artikuluan ezarritako gutxieneko betekizunak betetzen badira, dirulaguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da. Horretarako, Justiziako zuzendaria likidazioa egiteko ebazpena emango du, eta, ebazpen horren bidez, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokituko dira.

22. artikulua.– De minimis araubidea.

Agindu honetan jasotako laguntzek edo dirulaguntzek honako hau bete beharko dute: Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa. Araubide horretan, Europar Batasuneko estatu batek enpresa bakarrari de minimis laguntzetan emandako gehieneko zenbatekoa ezin izango da 200.000 euro baino gehiago izan hiru ekitaldi fiskalen barruan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politike-tako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar dezakete zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua aipatu aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan prozedurari buruz arautu gabe geratu diren alderdiei Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko zaie.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 30a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

Zigortuak eta presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektua-2021.

Instrukzio-organo honi zuzendua:
JUSTIZIA ZUZENDARITZA

Eskatzailearen datuak
Identifikazio-dokumentua:
Zenbakia:
Izena:
Lehenengo abizena:
Bigarren abizena:
Sexua:
Honela ari da jarduten <input type="checkbox"/> Espedienteko pertsona/erakunde interesduna <input type="checkbox"/> Espedienteko erakunde interesdunaren ordezkaria
Ordezkatutako pertsonaren/entitatearen datuak
Identifikazio-agiria
Zenbakia
Izena
Lehenengo abizena
Bigarren abizena
Sexua

Ordezkaritza hori eskabide honetarako baino ez da erabiliko, eta ez da gordeko Ahalordeen Erregistroan.

Helbide honetara bidaliko dira jakinarazpenak eta komunikazioak:
Administrazioak espediente hau izapidetzen den bitartean bidaltzen dituen jakinarazpenak Ahalordeen Erregistroan alta emanda dagoen ordezkariari zuzenduta bidaliko ditu:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Posta-datuak dituzu zure kontuan. Aldatu egingo ditugu, eta, aurrerantzean, elektronikoki gordeko dira.

Elektronikoa: Nire karpetako jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Hor sartzeko, identifikazio elektronikoko bitarteko bat erabili behar da.

Kanal elektronikoari buruzko oharra: Jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazpena egindakotzat joko da, Nire karpetan eskuragarri jarri den egunetik 10 egun natural igarotakoan. Epe hori bete ondoren, jakinarazpena errefusatu duzula ulertuko da, eta hala jasota geratuko da espedientean. Izapidea egindakotzat joko da, eta Administrazioak prozedurarekin jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

Nire karpetan jakinarazpen edo komunikazio bat daukazunean, abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

Helbide elektronikoa:

Telefono mugikorra:

Gogoan izan: abisua, zuri ez ezik, Ahalordeen Erregistroan prozedura honetan erakundeko enplegatu gisa ageri diren erabiltzaile guztiei ere bidaliko zaie.

Komunikaziorako hizkuntza

Zuk aukeratutako hizkuntzan egongo dira idatzita posta elektronikoaren bidez eta abisu-mezuen bidez jasoko dituzun jakinarazpenak eta komunikazioak.

Euskara

Gaztelania

Datuak erabiltzeko adostasuna

- Nire komunikazio- eta abisu-datuak Eusko Jaurlaritzako sailekin eta organismoekin izango ditudan harreman guztietarako erabiltzea nahi dut.
- Nire komunikazio- eta abisu-datuak espediente hau kudeatzeko soilik erabiltzea nahi dut.

Eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historikotan / erkidegotan / probintzian dauden

Lurralde historikoa / Erkidegoa / Probintzia:

Honako hau adierazten dut:

Zehapen-adierazpenak

- Ez dut jaso administrazio-zehapenik, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten didanik, eta ez dut dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu epai irmo bidez edo prebarikazioa, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafikoa, iruzur eta ordainarazpen ilegalak edo hirigintza-delituak direla eta.
- Ez dut dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko desgaitzen nauen legezko debekurik, ez eta, bereziki, sexu-diskriminazioagatik ezarritako halako debekurik ere.

Adierazpen espezifikoak

- Indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak betetzen ditut.
- Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan dokumentu guztiak ere; alde horretatik, dagokidan erantzukizuna neure gain hartzen dut (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

De minimis laguntza

- De minimis laguntzak jaso ditut 2019ko, 2020ko eta 2021eko zerga-ekitaldietan.
- Ez dut de minimis laguntzarik jaso 2019ko, 2020ko eta 2021eko zerga-ekitaldietan.

Jaso badituzu, zehaztu alderdi hauek:

Zerga-ekitaldia	Noiz jaso duzun	Erakundea	Programa	Laguntzaren zenbatekoa

Inskripzioaren adierazpena

Adierazten dut erakunde eskatzailea inskribatuta dagoela honako erregistro publiko honetan:

- Elkarteen erregistroa
- Fundazioen erregistroa
- Kooperatiben Erregistroa

Inskripzioaren datuak (inskrizio-data eta -zenbakia):

Aurkeztu nahi duzun dokumentua	Aurkeztu duzun dokumentua
Proiektuaren memoria	
Sarrera eta gastuen aurrekontu banakatua	
Eratze-eskritura, estatutuak eta erregistroko inskripzioa	

Ofiziozko egiaztapena

Aplikatu behar den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu, ofizioz, administrazio eskudunean:

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia).

Zerga-betebeharrak egunean izateari buruzko datuak (EAEko foru-aldundiak edo Zergen Estatu Agentzia).

- Ez dut onartzen prozedura honetako instrukzio-organoak ofizioz ezer egiaztatzerik (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua).

Oharra: egiaztapenak egiterik nahi ez baduzu, dokumentazio guztiak aurkeztu beharko dituzu.

Administrazio Publikoak aurkeztu diren datuak erka ditzake, eta egin beharreko egiaztapenak egin.

----- , -----

(Lekua)

(Data)

(Pertsona/Erakunde interesdunaren edo ordezkariaren sinadura)

II. ERANSKINA

PROIEKTUAREN MEMORIA

I. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

IZENA: _____

MODALITATEA (adierazi zein modalitatetan sartzen den proiektua, deialdia egiten duen aginduaren 2. artikuluan dauden aukeren artean):

- A) Espetxean edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektua:
- Esku-hartze psikoterapeutikorako eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzerako programa (2.1.a.1 art.)
 - Programatutako irteerak eta auzolandegiak (2.1.a.2 art.)
 - Egoitza- eta ostatu-baliabideak (2.1.a.3 art.)
 - Gizarteratzeko baliabideak droga-mendekotasuna duten pertsonentzat (2.1.a.4 art.)
 - Prestakuntza- eta trebakuntza-zentroa (2.1.a.5 art.)
 - Lanerako orientazio- eta laguntza-zentroa (2.1.a.6 art.)
- B) Zigor askatasun-gabetzailea eteteko neurria jaso duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektua (2.2 art.), honako helburu hauetakoren baterako bada (adierazi egoki dena)
- prestakuntza-programa
 - lan-programa
 - kultura-programa
 - sexu-hezkuntzako programa
 - ingurumena babesteko programa
 - animaliak babesteko programa
 - tratu-berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako programa, eta antzeko beste batzuk
 - alkohola, droga toxikoak edo substantzia estupefazianteak kontsumitzeari uzteko programa edo mendekotasuna sortzen duten beste jokabide batzuk tratatzeko programa.

PROIEKTUAREN HARTZAILEAK (markatu lauki egokia):

espetxean edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuak

zigor askatasun-gabetzaileen betearazpena etenda duten zigortuak

bata zein bestea, hau da: espetxean edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuak edota zigor askatasun-gabetzailea etenda duten zigortuak

ESKATUTAKO ZENBATEKOA: _____

JARDUERA: (Argi eta zehaztasunez azaldu behar da egingo den jarduera, hartzaile diren zigortuekin egingo den lana, proiektuaren helburu zehatzak eta erabiliko den metodologia).

AURREKO URTEKO ONURADUN-KOPURUA*: _____

*Aurreko urteko dirulaguntza-deialdian parte hartu duten erakundeek baino ez dute atal hau bete behar.

AURTENGO ONURADUN-KOPURUA: _____

LURRALDE EREMUA: _____


DENBORA-EREMUA: _____

GIZA BALIABIDEAK: _____


BALIABIDE MATERIALAK: _____

II. BALORAZIO-IRIZPIDEAK


PROIEKTUAREN EKARPENA ESPETXEAN EDO BALDINTZAPEKO ASKATASUNEAN DAUDEN ZIGORTUEN EDOTA ZIGOR ASKATASUN-GABETZAILEA ETEN ZAIEN ZIGORTUEN GIZARTERATZEKO ETA LAN-MUNDUAN TXERTATZEKO PROZESUARI



PROIEKTUAREN EGOKITASUNA EDO INTERES SOZIALA.



BESTE ERAKUNDE BATZUEN LANKIDETZA ETA PARTE-HARTZE MAILA.



PROIEKTUA HAINBAT URTETAN GAUZATZEKO AUKERA.



BOLUNTARIOEN PARTE-HARTZEA.



III. ERANSKINA

PROIEKTUAREN AURREKONTU OSOA

Gastuak

Kontzeptua	Zerga-oinarria	BEZa (hala badagokio)	Zenbatekoa, guztira
Soldatapeko langileen gastuak (erakundearen konturako soldata gordinak eta gastu sozialak)			
Borondatezko lanaren gastuak (boluntarioei itzultako zenbatekoak, hala badagokio, jarduera garatzean egin dituzten gastuengatik eta istripuko, gaixotasuneko eta erantzukizun zibileko aseguru-polizengatik)			
Diruz lagundutako programa garatzen den higiezinari lotutako gastuak (adibidez, alokairu-gastuak eta higiezina erabiltzeagatik sortzen diren bestelako gastu arruntak)			
Joan-etorrietako gastuak (erregaia, bidesariak, aparkalekua eta garraio publikoa)			
Zigortuen mantenu-gastuak			
Zigortuen ostatu-gastuak			
Jarduera garatzeko zuzenean behar diren materialak eta hornidurak			
Higiezinak mantentzeko eta konpontzeko gastuak, gehienez 1.000 € (baina soilik egoitza- eta ostatu-baliabideetarako eta droga-mendekotasuna duten pertsonak gizarteratzeko baliabideetarako)			

2021eko urriaren 19a, asteartea

Kontzeptua	Zerga-oinarria	BEZa (hala badagokio)	Zenbatekoa, guztira
Zuzeneko bestelako gastuak (zehaztu):			
Zuzeneko gastuak, guztira			
Zeharkako gastuak (zuzeneko gastuen zenbateko osoaren % 5, gehienez)			
Gastuak, guztira			

2021eko urriaren 19a, asteartea

Diru-sarrerak	Zenbatekoa
Eskatzailearen ekarpena	

+ Gehitu beste lerro bat

Erakunde publikoen ekarpenak	

+ Gehitu beste lerro bat

Erakunde pribatuen ekarpenak	

+ Gehitu beste lerro bat

Bestelako diru-sarrerak	

+ Gehitu beste lerro bat

Diru sarrerak, guztira	
------------------------	--

Eskatutako beste dirulaguntza batzuk

Erakunde emailea	Eskatutako zenbatekoa	Egoera	Emandako zenbatekoa
Guztira			

+ Gehitu beste lerro bat

2021eko urriaren 19a, asteartea

IV. ERANSKINA
JUSTIFIKAZIO-KONTUA

I. **Jarduera justifikatzeko memoria** (beste dokumentu batean erantsiko da, edozein formatutan eta deialdiaren aginduko 18.1.a) artikuluan zehazten den edukia duela)

II. -Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua

Erakunde onuradunak BEZa kendu edo konpentsatu dezake	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ (markatu dagokiona)
---	--

Oharra: Proiektuaren kostua osoa jaso behar da zerrendan (ez bakarrik emandako dirulaguntzaren zenbatekoa). Baina, emandako dirulaguntzari egotzi ahal zaizkion gastuen fakturek eta frogagiriek (eskaneatuta aurkeztu behar dira) bat etorri behar dute dirulaguntzaren zenbateko osoarekin.

ZUZENEKO GASTUAK:									
ZK.	Mota: (faktura/ nomina/ LLO/ZEN / beste bat)	Kontzeptua	Hartzekoduna (izena eta IFZ)	Dokumentuaren jaulkipen-data	Ordainketa- data	Zerga-oinarria	BEZa (berez, 0)	Guztira (=Batu 7. eta 8. zut.)	Egotzitako zenbatekoa
JUSTIFIKATUTAKO ZUZENEKO GASTUAK, GUZTIRA									

+ Gehitu beste lerro bat

2021eko urriaren 19a, asteartea

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUARI EGOTZITAKO ZEHARKAKO KOSTUAK (kostu osoaren zenbatekoaren % 5, gehienez):	Zenbatekoa

III.- JUSTIFIKAZIOAREN UNEAN ESKATUTAKO BESTE DIRULAGUNTZA BATZUK

(Aldaketarik izanez gero soilik bete behar da)

ERAKUNDE EMAILEA	ESKATUTAKO ZENBATEKOA	EGOERA	EMANDAKO ZENBATEKOA
Guztira		Guztira	

+ Gehitu beste lerro bat